1.- Zein kasutan hiru egoera aldaketa prozesuek beroa xurgatu behar dute gertatu ahal izateko?

A. Fusioa, lurruntzea eta sublimazioa.
B. Solidotzea, kondentsazioa eta sublimazioa.
C. Fusioa, kondentsazioa eta solidotzea.
D. Fusioa, kondentsazioa eta sublimazioa.

2.-Substantzia hauen fusio eta irakite tenperaturak aztertu. Adierazi zein egoeratan (solidoa, likidoa edo gasa) egonen diren 37ºC-tan.

Substantzia	**Fusio-tenperatura (ºC)**	**Irakite-tenperatura (ºC)**	**Egoera 37ºC-tan**
Burdina	1535	2750	
Merkurioa	-38	357	
Oxigenoa	-219	-183	

3.-Jakinik Lurrean grabitate indarra Marten baino handiagoa dela, 70 kg-kopertsona batek non pisatuko du gehiago, Lurraren gainazalean edo Marteren gainazalean?

A. Lurrean zein Martean, pertsonak berdin pisatuko du grabitate indarrak ez baitu eragiten pertsonaren pisuan.

B. Marten gehiago pisatuko du, Marteko gainazaletik zentrora dagoen distantzia Lurrean baino txikiagoa delako.

C. Lurrean gehiago pisatuko du, grabitate indarra handiagoa delako.

D. Pertsona bi planeten gainazalean egonik, pisu diferentzia baztergarria izanen da.

4.-Lapiko batean ura berotzen badugu eta beste batean alkohola, biak tenperatura berdinarekin, zer substantzia lurrunduko da lehenago?

A. Ura
B. Alkohola
C. Biak batera
D. Ez dira inoiz lurrunduko

Substantzia	**Fusio-puntua (ºC)**	**Irakite-puntua (ºC)**
Ura	0	100
Alkohola	-117	78

5.-Dentsitate desberdinetako hiru likido daude, A, B eta C. Ordena itzazu dentsitate handienetik txikienera.



☐ > ☐ > ☐



☐ > ☐ > ☐

6.-Egin itzazu hurrengo unitate aldaketak

A.-13,6 g/cm^3 → kg/dm^3

B.-1000kg/m^3 → g/cm^3

C.-4,5 g/cm^3 → mg/dm^3

D.-2,75cg/dm^3 → mg/cm^3

E.-80mg/cm^3 → g/dm^3

F.-40kg/dm^3 → g/cm^3

G.-12mg/mm^3 → dg/cm^3

H.-0,9g/cm^3 → kg/m^3

I.-930,5 mg/dm^3 → kg/m^3